

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

734

IRAGARKIA, 2021eko urtarrilaren 22koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Bizkaiko lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita honako proiektu hau: baterien bidez energia biltegitutzeko sistema, Abadiñoko udal-mugaratean (Bizkaia).

Jendaurrean jartzen da erreferentziako instalazio elektrikoari buruzko informazioa, martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuan xedatutako ondorioetarako (2020-04-24ko EHAA) –dekretu horren bidez arautzen dira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak–, eta honako hauetan xedatutakoarekin bat etorriz: Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikulua (2013-12-26ko BOE). Izan ere, instalazio horretarako eskatu dituzte aurretiazko administrazio-baimena eta egikaritzeko baimena.

Erref.: IFT/YMM.

Esp.: 48-GE-Y-2020-00004.

- Eskatzailea: Eólicas de Euskadi, S.A.
- Kokapena: Abadiñoko udal-mugaratea.
- Aurrekontua, guztira: 2.326.903,74 euro.
- Helburua: baterien bidez energia biltegitutzeko sistema jartzea, zeina han dagoen 30 kV-ko sarera konektatuko baita.
- Instalazioaren ezaugarriak: Carmen Ibáñez Gómez industria-ingeniariak 2020ko abenduan sinatutako proiektuan adierazitakoak; proiektu hori espedientean jasota dago.

Instalazioa egiteko aurretiazko administrazio-baimena eta egikaritzeko baimena eskatzen dira.

Eta hori guztia argitara ematen da, proiektua aztertu ahal izateko Bilboko Concha Jeneralaren kaleko 23. zenbakiko 5. solairuan dagoen lurralde-bulegoan edo url honetan: <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/>

Bidezko iritzitako alegazioak –bi kopia– lurralde-ordezkaritzan aurkeztu beharko dira, hogeit eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Bilbao, 2021eko urtarrilaren 22a.

Bizkaiko lurralde-ordezkaría,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.